



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.11.24an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
MARIA UBARRETXENA CID
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA
CRISTINA MARQUINA IGARZA

ARRASATE
BERGARA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2020ko azaroaren 24an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenen ezarritakoarekin bat etorriz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egin da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Ander Garayk esan du galde-erreguetan ez dela jaso Maria Ubarretxenak egindako galdera, hau da, 2021eko Aurrekontuak noizko egongo diren.

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2020ko urriaren 27an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa, galde-erreguetan Mariak egindako galdera jasotzea erabakiz.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2021eko Aurrekontu Orokorraren eta Plantila Organikoaren zirriborroa

Kontu-hartzaileak 2021eko Aurrekontu Orokorraren zirriborroa aurkeztu du.

Ander Garayk Epeleko zabortegeari buruzko bilera monografiko bat egitea eskatu du.

Gobernu Juntak honako hau ERABAKI DU:

1. Epeleko zabortegearen gaia Ingurumen Batzordearen baitan tratatzea. Gorka Artolak esan du berak ere nahiko lukeela bilera horretan parte hartu.
2. 2021eko Aurrekontu zirriborroaren aldaketa proposamenak abenduaren 4rako aurkeztea, hurrengo astean Kontu eta Ogasun Batzorde bereziaren bilkura eginez, abenduaren 15ean egingo den Gobernu Juntaren hurrengo ohiko bilkuran hasierako onespina eman ahal izateko.

Azkenik, idazkariak 2021eko Plantila Organikoaren zirriborroa aurkeztu du.

2.2.- Hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan HAEE-IVAPekin sinatu beharreko lankidetza hitzarmena

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, HAEE-IVAP-ek, hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan lankidetza hitzarmen bat sinatzea proposatu dio Mankomunitateari.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Hitzarmen honen bidez bi erakundeen arteko harreman juridikoa zehazten da. Harreman juridiko honek honako jardute-esparruak izango ditu:

- Euskara-ikastaroak antolatzea: euskalduntze/alfabetatzeko eta 4. hizkuntza-eskakizunari dagokion hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak.
- Dirulaguntzak: euskara-ikastaroetara doazen langileak ordezkatzeko.
- Terminologia juridiko-administratiboa.
- Euskarazko administrazio-materiala prestatu eta erabiltzea.

Hitzarmen honen iraupena lau urtekoa izango da, 2020ko urriaren 2tik kontatzen hasita, aldeetako batek ez badu berariaz adierazten bertan behera utzi nahi duela.

Proposatutako hitzarmenaren testua irakurri ondoren, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- HAEE-IVAP-ekin hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, proposatutako testuaren arabera.

2.3.- Debagoieneko hondakinak Elgoibarko Transferentzia Estaziora garraiatzeagatiko konpentsazio ekonomikoa 2017ko apirilaren 1etik ordaintzeko eskaera ezetsiz Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak, 2020ko irailaren 25ean, hartutako erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztea; Gobernu Juntaren berrespena

Ikusirik Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak, 2020ko irailaren 25eko bilkuran, ezetsi egin duela Debagoieneko hondakinak Elgoibarko Transferentzia Estaziora garraiatzeagatiko konpentsazio ekonomikoa 2017ko apirilaren 1etik ordaintzeko Mankomunitate honen eskaera, lehendakariak, idazkariaren txosten juridikoa irakurririk, Estatutuen 16.8 artikulua araber, 2020ko azaroaren 2an, honako ebazpen hau onartu du:

“20/73 ebazpena: Ikusirik Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak, 2020ko irailaren 25eko bilkuran, ezetsi egin duela Debagoieneko hondakinak Elgoibarko Transferentzia Estaziora garraiatzeagatiko konpentsazio ekonomikoa 2017ko apirilaren 1etik ordaintzeko Mankomunitate honen eskaera.

Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenei buruzko apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 54.3 artikuluan jasotakoa betez, Mankomunitateko behin behineko idazkariak egindako ekintza judizialen bideragarritasunari buruzko txostena ikusirik.

Eta aipatu erabakiak Debagoieneko Mankomunitatearen eskubide eta ondasunei egiten dien kaltea kontuan hartuz, gaur egun Mankomunitate honetan indarrean dauden Estatutuen 16.8 artikulua araber, Mankomunitateko lehendakariari dagokiolarik epaitegi-eta administrazio-akzioak eta mankomunitatearen defentsa egikaritzea, larrialdietan, Gobernu Juntaren eskumeneko gaietan, Gobernu Juntari berri eman ez egiten duen lehenengo bilkuran berresteko.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

ERABAKI DUT:

1.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak, 2020ko irailaren 25eko bilkuran, Debagoieneko hondakinak Elgoibarko Transferentzia Estaziora garraiatzeagatik konpentsazio ekonomikoa 2017ko apirilaren 1etik ordaintzeko Mankomunitate honen eskaera ezetsiz hartutako erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea.

2.- Mankomunitatearen abokatu EKAIN Aholkularitza taldeko JUAN LANDA MENDIBE abokatua izendatzea, eta prokuradore berriz, Donostiako prokuradorea den MARISA LINARES FARIAS.

3.- Ebazpen honen berri Gobernu Juntari ematea bere hurrengo bileran, bere berrespenerako.”

Gobernu Juntak aho batez aipatu ebazpena berrestea ERABAKI DU.

2.4.- Familia inguruneko zaintzari buruzko formakuntza saioak emateko Arrasateko Udalarekin lankidetzaz hitzarmena

Arrasateko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, kudeatzen duen “Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoen markoan”, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Matia Fundazioaren bidez, hainbat formazio saio eman behar ditu mendekotasuna aitortua duen pertsonaren zaintzaileen eta familiartekoen formazio bermatzeko.

Covid 19 pandemiaren eraginez, Arrasateko Udala lokalik gabe gelditu da aipatu formazio saioak emateko eta Mankomunitateari gela bat eskatu dio abenduko, otsaileko eta apirilako egun eta ordu jakin batzuetarako.

Bestalde, Debagoieneko Mankomunitateak ikasgela bat erabilgarri dauka, momentuz behintzat, Arrasateko Udalak eskatutako egun eta orduetan.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Arrasateko Udalarekin hitzarmen bat sinatzea Mankomunitatearena den Zaldibar eraikinaren bigarren pisuko ikasgela bikoitza Arrasateko Udalarari dohainik erabiltzen lagatzeko, bertan familia inguruneko zaintzari buruzko hainbat formazio saio emateko, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA

Debagoieneko Mankomunitateak bere jabegokoa den Zaldibar eraikineko bigarren pisuko ikasgela bikoitza, tolesgarria dena, lagako dio dohainik Arrasateko Udalarari bertan “Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoen markoan” hainbat formazio saio emateko, hitzarmen honetan zehaztutako baldintzetan.

Dena dela, Mankomunitatearen beharrek lehentasuna izango dute. Beraz, Mankomunitateak Arrasateko Udalarari lagatutako ikasgela honen beharra izanez gero, Udalak berehala Mankomunitateari utzi beharko dio.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

BIGARRENA.- LAGAPENAREN BALDINTZAK

Mankomunitateak Arrasateko Udalari lehen klausulan zehaztutako ikasgela utziko dio ondorengo egun eta orduetan:

- Abenduaren 1, 2, 3, 9, 10, 14, 15 eta 17; 10:00etatik 12:00etara.
- Otsailaren 1, 3, 8, 10, 15, 17, 22 eta 24; 10:00etatik 12:00etara.
- Apirilaren 7, 9, 12, 14, 19, 21, 26 eta 28; 15:00etatik 17:00etara.

Apirileko arratsaldeetako saioetan Arrasateko Udalak arduradun bat izendatu beharko du Mankomunitateko sarrerako atea kontrolatzeko eta saioa bukatutakoan itxita gelditzen dela bermatzeko.

HIRUGARRENA.-LOKALAREN ERABILERA

Debagoieneko Mankomunitateak. Arrasateko Udalari egiten dion dohako lagapen hau "Familia inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomikoen markoan" hainbat formazio saio emateko da. Helburu hau ez balitz beteko, hitzarmena iraungita geratuko litzateke.

Arrasateko Udalak baimendutako erabileraren arabera erabiliko du lagatako lokala, eta beharturik dago egoera ezin hobean mantentzera. Egindako kalteen erantzule ere bera izango da, eta lagapena bukatzean hartu zuenean bezalaxe itzuli beharko du.

LAUGARRENA.-HITZARMENAREN IRAUPENA.

Lagapen honen iraupena 2020ko abenduaren 1ean hasi eta 2021eko apirilaren 28an bukatuko da.

BOSGARRENA.- LOKALAREN MANTENTZE, FUNTZIONAMENDU ETA INBERTSIO GASTUAK

Lagatako lokalean beharrezko aparatuak jartzea eta mantentzea Arrasateko Udalaren ardura izango da.

Arrasateko Udalak lagatako lokalaren garbiketa gastuak ordaindu beharko ditu, 19,40 €, gehi BEZa, ordu bakoitzeko.

SEIGARRENA- ARRASATEKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA.

Arrasateko Udala izango da erantzule bakarra Mankomunitatearen aurrean. Horretarako, Arrasateko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin beraien arteko harremana arautzeko dagokion hitzarmena sinatu beharko du, non, besteak beste, hitzarmen honetan jasotako erabilera baldintzak jaso beharko diren.

Arrasateko Udalak ordaindu beharko ditu lagatako lokalean garatutako jardueraren ondorioz hirugarrengoei eta Mankomunitateari berari eragindako kalte guztiak.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

ZAZPIGARRENA.-HITZARMENA AMAITZEKO ARRAZOIAK.

40/2015 Legeak 51. artikuluan aurreikusitako arrazoiez gain, hitzarmena iraungitzeko arrazoiak izango dira hauek:

- Mankomunitateak lagatako lokalaren beharra izatea.
- Lagapenaren helburua ez betetzea.
- Sinatutako hitzarmenaren klausuletako edozein hautsi izana.
- Zabarkeria lokalak erabiltzean.
- Gutxiegi erabili izana.

Lehenago adierazitako arrazoiren batengatik hitzarmena amaituz gero ez dio emango lagapen hartzaileari ezelako kalte-ordaina izateko eskubiderik.

ZORTZIGARRENA.-ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak zuzenduko ditu haren interpretazioa eta garapena.”

3.- INGURUMENA

3.1.- Sukaldeko olio erabilia biltzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea; proposamenen sailkapena

Idazkariak jakinarazi du sukaldeko olio erabilia biltzeko kontratazio espedientean bi lizitatuak aurkeztu direla, ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. eta RAFRINOR, S.L. Azaroaren 23an ireki zirela bi proposamenen C gutun-azalak eta aurkeztutako bi proposamenen guztizko puntuazioa kalkulatu ondoren, ikusi zela puntuaziorik handiena lortu zuen proposamena, RAFRINOR, S.L. enpresarena, oso baxua zela, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraikiz, Kontratazio Mahaiak aipatu lizitatuak eskatu diola bere eskaintza justifikatzeko eta xehatzeko.

Gobernu Junta jakinaren gainean gelditu da.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; luzapen bat

- N.I.E. (Aholkularitza Integrala); 4. urterako luzapena

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2021eko abenduaren 4ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 8-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, N.I.E. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2017ko azaroaren 14ko erabaki bitartez.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

20/69.- Mikel Jaio langileari pandemia egoera honek dirauen bitartean telelanean jarduteko baimena ematea, beti ere, beharrezkoa denean bulegora etortzeko konpromisoarekin.

Ingurumen Zerbitzuko arduradunak egin beharreko lanak zehaztuko dizkio eta bere jarraipena aldiari-aldiari egingo dio.

Pandemia hau hobetzen doan heinean telelanarekiko egoera ere berriro ebaluatuko da.

20/70.- Asier Etxaniz funtzionarioaren ordezkapena egiteko LEIRE DIAZ DE GUEREÑU ECHAVARRIA izendatzea bitarteko funtzionario, 2020ko urriaren 26tik abenduaren 2ra arte. Hileko 2.797,94 €ko ordainsari gordina emango zaio, honela banatuta:

- Soldata: 1000,45 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 427,95 €. (18)
- Berriazko osagarria: 1.369,54 €.

20/71.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditu transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	19.000,00	18.000,00	1.000,00
GUZTIRA		19.000,00	18.000,00	1.000,00

Kreditu jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	25.000,00	18.000,00	43.000,00
GUZTIRA		25.000,00	18.000,00	43.000,00



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa”

.20/72.- 2020ko urriko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantza	Elkarkidetzak	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.060,00 €	1.156,70 €	0,00 €			
Funtzionarioak	58.088,52 €	15.187,74 €	1.736,76 €	43,21 €		
Interinoak	19.628,67 €	6.804,42 €	230,31 €			
Laboralak	43.017,41 €	17.453,71 €	1.021,74 €			
Guztira	123.794,60 €	40.602,57 €	2.988,81 €	43,21 €	33.635,45 €	90.202,36 €

20/73.- 1.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak, 2020ko irailaren 25eko bilkuran, Debagoieneko hondakinak Elgoibarko Transferentzia Estaziora garraiatzeagatiko konpentsazio ekonomikoa 2017ko apirilaren 1etik ordaintzeko Mankomunitate honen eskaera ezetsiz hartutako erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzea.

2.- Mankomunitatearen abokatu EKAIN Aholkularitza taldeko JUAN LANDA MENDIBE abokatua izendatzea, eta prokuradore berriz, Donostiako prokuradorea den MARISA LINARES FARIAS.

3.- Ebazpen honen berri Gobernu Juntari ematea bere hurrengo bileran, bere berrespenerako.

20/74.- 20/24 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMO (391.272,44 €).

6.- GALDE-ERREGUAK

Ez dago galde-erregurik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA